

Hilkortasuneko desberdintasun  
sozioekonomikoak eremu txikietan,  
Euskadin. 2013-2017

**Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza**  
**Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza**  
Imanol Montoya, Montse Calvo eta Covadonga Audicana.

**Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**  
Elena Aldasoro

**Arabako Lurralde Ordezkaritza**  
Ines Garmendia

**Itzulpena:**  
IVAP. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO).

**Erabilera-baimena:**  
Baimenduta dago guztiaren edo zati baten erreprodukzioa, erabilera ez komertzialerako, baldin eta dokumentuaren aipamena egiten bada.

**Iradokitako aipamena:**  
Montoya I, Calvo M, Audicana C, Garmendia I eta Aldasoro E. Desberdintasun sozioekonomikoak hilkortasunean, eremu txikien arabera, EAE 2013-2017. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza. Osasun Ikasketak eta Ikerketako Zerbitzua, 2021.

**Edizioa: 1.a, 2021eko abenduan**  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Osasun Saila

**Internet:**  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/equidad\\_en\\_salud/eu\\_def/adjuntos/Desberdintasun\\_sozio\\_2013\\_2017.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/equidad_en_salud/eu_def/adjuntos/Desberdintasun_sozio_2013_2017.pdf)

## Aurkibidea

1. Laburpena
2. Sarrera
3. Xedea
4. Metodoak
  - a. Unitate geografikoa
  - b. Azterketa-aldia
  - c. Datuen iturria
  - d. Aztertutako heriotza-kausak
  - e. Gabezia sozioekonomikoaren indizea, 2011
  - f. Azterketa estatistikoa
5. Emaitzak
  - a. Aztertutako heriotza-kausak eta heriotza kopurua
  - b. Gabezia-indizea EAEn, 2011
  - c. Azterketa estatistikoen emaitzak
6. Ondorioak
7. Bibliografia
8. Taulak eta irudiak

## 1. Laburpena

- 2013-2017 aldian, EAEn, pertsonen bizilekua desberdintasun-ardatz bat izan zen heriotza-arriskuari dagokionez, aurreko aldietan bezala.
- EAEko gizonezkoen kasuan, hilkortasun-multzo handietan (kausa guztiak, tumore gaiztoak, zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas sistemako gaixotasunak, kanpoko kausak eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak) eta kausa espezifiko askotan, heriotza-arriskua handiagoa da oraindik EAEn egoera okerragoan dauden eremuetan.
- EAEko emakumeen kasuan, okerrren dauden aldeetako heriotza-arriskua handiagoa da hilkortasun-multzo handietan, 2013-2017 aldira arte gertatu gabea zena.

## 2. Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren helburuen artean dago EAEko herritarren osasuna hobetzea, haien bizi-kalitatea handitzen jarraitzea eta desberdintasunak murriztea.

Osasun-arloko desberdintasun sozialak osasun-diferentzia bidegabeak dira, eragotzi daitezkeenak, sozialki, ekonomikoki, demografikoki edo geografikoki definitutako biztanle-taldeen artean agertzen direnak (1). Desberdintasun horien sorburuan pertsonak dituzten aukera eta baliabide diferenteak daude, klase sozialaren, gizon edo emakume izatearen, bizilekuaren edo etniaren arabera: osasun okerragoa izatea eragiten dute. Desberdintasunen garrantzia aldatu egiten da herrialdeen artean eta denboran; horrek esan nahi du desberdintasun horietako asko eragozteko modukoak direla.

2013-2020 aldirako Euskal Osasun Planak lehen arlo lehenetsizat zuen Ekitatea eta Erantzukizuna. Horren bidez, EAEko biztanleen artean osasuneko desberdintasun sozialak eta generokoak murriztu nahi ziren, okerrago dauden taldeen egoera hobetze aldera. Helburu horri erantzuteko, helburuetako bat zen osasun-arloko desberdintasunei buruzko monitorizazioa eta ikerketa sustatzea eta garatzea. Hori dela eta, funtsezkoa da EAEko biztanleen osasun-adierazleak izatea, bizilekuaren arabera, eta baliozkoak eta fidagarriak izatea. Adierazle horien artean, garrantzitsuenetako bi dira pertsonen bizi-itxaropena eta kausa nagusien heriotza-arriskua.

Osasun Sailak bi hamarkada baino gehiago daramatza ikerketa-ildo horretan lanean, eta MEDEA proiektuan parte hartzeak ekarri zuen ikerketa-ildo horren garapenari bete-betean ekitea. Lan horren emaitza nagusietako bat izan zen EAEko eremu txikietako hilkortasun-atlasa(2). Atlasak hilkortasun osoaren eta kausa espezifikoaren arabera banaketa geografikoa deskribatzen du, 1996-2003 aldian, emakumeak eta gizonak banakatuta, EAEko eta hiru hiriburu-eremuko errolda-atalen arabera. Hilkortasun-mapez gain, erroldako adierazle sozioekonomikoak ematen dira. Atlas horren emaitzek ondo erakusten dute desberdintasun geografikoak noraino eragiten dion hilkortasunari, eta bizilekua dagoen eremu geografikoaren testuinguruak zer garrantzia duen hilkortasun-baldintzatzaile gisa. Horregatik, tresna baliagarria da osasun-arloko desberdintasunak murriztea helburu duten politikak bideratzeko.

2015ean, doktoretza-tesi batek, *Evolución de las desigualdades socioeconómicas en la mortalidad en áreas pequeñas de la Comunidad Autónoma del País Vasco* izenekoa (3), aztergai hartu zuen hilkortasunaren eta gabezia sozioekonomikoaren arteko lotura, eremu txikien arabera, 1996-2001 eta 2002-2007 aldietan.

Ondoren, Osasun Sailak bigarren atlas bat argitaratu zuen, *Euskal Autonomia Erkidegoko eremu txikietako hilkortasunaren bilakaeraren atlasa. 1996-2001, 2002-2007* (4). Bertan, eremu txikietako hilkortasunak bi aldi horietan izan duen bilakaera deskribatzen da.

Azterlan honen analisiak eta emaitzak MEDEA-EAE proiektuaren hirugarren edizioaren esparruan daude, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren estatistika-eragiketa honen zabalkundearen barruan daude: «010307 estatistika-eragiketa: Bizi-itxaropeneko eta hilkortasuneko desberdintasun geografikoak eremu txikietan».

### 3. Xedea

Azterlan honen helburua izan da gabezia sozioekonomikoaren eta heriotza-arriskuaren arteko lotura aztertzea heriotza-kausa nagusietarako, 2013-2017 aldian, eta aurreko aldiekiko bilakaera deskribatzea.

### 4. Metodoak

#### a. Unitate geografikoa

Analisetan erabilitako unitate geografikoa errolda-atalak izan ziren, 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldaren arabera.

#### b. Azterketa-aldia

Azterketa-aldia 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra bitartekoa izan zen.

### c. Datuen iturria

EAEko biztanleen 2013-2017 aldiko heriotzei buruzko datuak Heriotzen Estatistikatik atera dira; estatistika hori Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egiten du, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) laguntzarekin. Heriotza bakoitzeko, hauek aztertu ziren: bizitokiaren errolda-atala (zentsu-sekzioa), sexua, adina (21 taldetan kategorizatua: urte 1 baino gutxiagokoak, 1-4, 5-9, ..., 90-94, 95 eta gehiago) eta heriotzaren oinarritzako kausa, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren arabera (GNS 10).

Errolda-atal bakoitzeko biztanle kopurua, adinaren eta sexuaren arabera, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikatik eta Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldatik atera zen; Eustatek egin ditu horiek, Estatistikako Institutu Nazionalaren laguntzarekin.

Erabilitako errolda-atalen kartografia Eustatek emandakoa izan da, eta 2011. urteari dagokio. Heriotzak eta biztanleria 2011ko atalekiko erreferentziatu dira.

Datu sozioekonomikoak 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldatik atera dira; hori ere Estatistikako Euskal Erakundeak (Eustat) eginga. Errolda-atal bakoitzean erabilitako datuak hauek dira: langabeziaren proportzioa biztanleria aktiboan, eskulangileen proportzioa biztanleria okupatuan, behin-behineko kontratudun soldatapekoen proportzioa biztanleria okupatuan, heziketa nahikorik ez duten biztanleen proportzioa eta heziketa nahikorik ez duten 16-29 urteko gazteen proportzioa.

### d. Aztertutako heriotza-kausak

Lan honetan, hilkortasun orokorra eta heriotza-kausak nagusien ondoriozko hilkortasuna aztertzen dira, magnitude-irizpideei jarraikiz, eta zenbait kausa multzo gehitzen dira interes epidemiologiko bereziagatik, edo heriotza goiztiarrean duten eraginagatik. 0. taulan, aztertutako heriotza-kausak agertzen dira, 2013-2017 aldiko EAEko heriotza kopuruarekin, sexuaren arabera.

### e. Gabezia sozioekonomikoaren indizea, 2011

Gabezia-indizea MEDEA I proiektuaren metodologiari jarraikiz kalkulatu zen (5). Osagai nagusizko analisia erabili zen 2011n errolda-atal bakoitzetik hautatutako bost adierazle sozioekonomikotan jasotako informazioa laburbiltzeko.

Hauek dira gabezia-indizea osatzen duten bost adierazle sozioekonomikoak:

- Eskulangileen proportzioa biztanleria okupatuan.
- Langabeziaren proportzioa biztanleria aktiboan.
- Behin-behineko kontratudun soldatapekoen proportzioa biztanleria okupatuan.
- Heziketa nahikorik ez duen biztanleen proportzioa: 16 urteko edo urte gehiagoko biztanleria, analfabetoa edo 5 eskolatzte-urte baino gutxiagorekin.
- Heziketa nahikorik ez duten 16-29 urteko gazteen proportzioa: 16-29 urteko biztanleria, analfabetoa analfabetoa edo 5 eskolatzte-urte baino gutxiagorekin.

#### f. Azterketa estatistikoa

Heriotza-arriskuaren eta gabezia-indizearen arteko lotura kalkulatzeko erabili zen estatistika-eredua honako hau izan zen:

$$\log(\mu_i) = \log(E_i) + \alpha + S_i + H_i + \sum_{j=2}^5 \beta_j \text{gabezia}_{ji} .$$

Hala,  $i = 1, 2, \dots, 1742$  EAEko errolda-atalak dira,  $\mu_i = E_i \theta_i$ ,  $\theta_i$  eremu bakoitzeko heriotza-arrisku erlatiboa,  $E_i$  errolda-atal bakoitzean espero diren kasuak zeharkako estandarizazio-metodoaren arabera,  $\alpha$  ereduko konstantea,  $S_i$  ausazko efektu espazial bat, eta  $H_i$  errolda-atal bakoitzeko ausazko efektu heterogeneoa edo egituratu gabea.

$\text{gabezia}_{ji}$  aldagaia kintilen bidez sartzen da eredian, eta lehen kintila hartzen da erreferentziatzat, egoera onenean dagoena, mesedetuena. Aurreko adierazpenean,  $\text{gabezia}_{ji}$  1 da, baldin eta  $i$ -garren errolda-atala gabezia-indizearen  $j$  kintilari badagokio, eta 0 bestela.

HAE leundu deritzo  $i$ -garren ataleko heriotza-arriskuaren zenbatespenari,  $\theta_i$ .



Eredu horrekin, heriotza-arriskuaren eta gabezia-indizearen arteko bi lotura-neurri kalkulatu dira. Neurri erlatibo bat eta neurri absolutu bat. Lehenik eta behin, heriotza-arrisku erlatiboa zenbatesten da, hots, neurri erlatiboa. Kalkulua egiteko,  $e^{\beta_j}$  adierazpena erabiltzen da, alegia,  $j$  kintileko atalen heriotza-arrisku erlatiboa, azterketa-aldiko mesedetuenarekiko. Haren balioa ondorengo banaketaren medianaren bidez lortzen da, eta % 95eko konfiantza-tartea kalkulatu da (KT % 95). Adibidez, bosgarren kintileko ataletan (okerren daudenetan) arrisku erlatiboa 1,65ekoa bada, horrek esan nahi du heriotza-arriskua % 65 handiagoa dela atal horietan lehen kintilekoetan (mesedetuenetan) baino.

Maila sozioekonomikoaren eta hilkortasunaren arteko loturaren bigarren neurritarako, neurri absolutua baita, gabeziari egotz dakiokkeen heriotza kopurua erabiltzen da. Horretarako, errolda-atal bakoitzean, heriotza kopuruaren aurreikuspena kalkulatu, eta heriotza kopurua kentzen zaio, atal horrek eta atal mesedetuenek arrisku berdina dutela emanda:

$$N.\text{heriotza esleigarriak}_i = \hat{O}_i - \hat{O}_i^*,$$

Hala,  $\hat{O}_i$  litzateke  $i$  ataleko heriotza kopuru aurreikusia eredu horren arabera, eta  $\hat{O}_i^*$   $i$  ataleko heriotzen aurreikuspena eredu horren arabera, atal horri egotziz gero egoerarik onuragarriena gabeziaren aldetik.

Arestian deskribatutako ereduaren zenbatesteko, metodologia bayestarra baliatzen da. Lehenik eta behin, a priorizko banaketak esleitzen zaizkie ereduaren ausazko parametro eta efektu guztiei. Ondorengo banaketak Markoven kateetan oinarritutako Monte Carlo metodoen bidez lortzen dira, WinBUGS programa erabiliz, 1.4.3 bertsioa, R programako R2WinBUGS liburutegitik zabaltzen zena. Zenbatespena egin ondoren, ereduaren parametroen bat-etortzea egokia zela ebatzi zen.

## 5. Emaitzak

### a. Aztertutako heriotza-kausak eta heriotza kopurua

0. taulan ageri dira aztertutako kausak eta EAEko heriotza kopurua 2013-2017 aldian, emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita. Gizonezkoen artean, hilkortasun-multzo nagusia tumore gaiztoak izan ziren; emakumeen artean, berriz, zirkulazio-sistemako gaixotasunak.

## b. Gabezia-indizea EAEn, 2011

1. irudian EAeko mapa bat ageri da, 2011ko gabezia-indizea kintiletan adierazita. Kolore marroi iluneko eremuak dira okerrago daudenak, eta kolore zurikoak, berriz, kintilik mesedetuenetakoak.

Mapa horren arabera, Bizkaian, okerrago daudenen kintileko atalen pilaketa handia dago Bilbo Handiko ezker aldean. Kontrara, Bizkaiko alde edo zona mesedetuenak lurralde osoan daude barreiatuta, nahiz eta Bilboko erdialdea, Bilbo Handiko eskuinaldea eta Plentzia-Mungia eskualdea nabarmentzen diren.

Gipuzkoan, egoera okerreneko eremuak Pasaia, Errenteria eta Soraluzeko errolda-atal askotan daude, eta Hernani, Andoain, Beasain, Arrasate eta Villabonako batzuetan. Aitzitik, eremu mesedetuenak Donostia erdialdeko ataletan daude gehienbat, baina baita Zarautz, Irun eta Hondarribiko batzuetan ere.

Arabian, atal okerrenak Gasteizko auzo batzuetan, Arabako Errioxako eremu batzuetan eta Agurainen daude. Aitzitik, Arabako atal mesedetuenak Gasteiz hegoaldean eta erdialdean daude, eta Zuia eta Zigoitia udalerrietan, Gorbeialdean.

## c. Azterketa estatistikoen emaitzak

2.-5. tauletan eta 2.-5. irudietan ageri dira 2013-2017 aldian egindako azterketen emaitzak, 2008-2012 aldiko emaitzekin batera. Alde batetik, loturaren neurri erlatibo bat ageri da: okerrago dauden eremuetako heriotza-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila) mesedetuenen aldean (1. kintila); eta, bestetik, neurri absolutu bat: EAeko bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua eta proportzioa.

6.-11. taulek orain arte aztertutako aldi guztietarako emaitzen historia erakusten dute: 1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017.

## Emaizak gizonezkoetan

Gizonezkoetan, 2. taulan ageri da okerrago dauden eremuetako heriotza-arrisku erlatiboa (5. kintila, gabeziari dagokionez) mesedetuenen aldean (1. kintila), 2013-2017 aldian, bai eta aurreko aldiko arriskua ere, konparazioa egin ahal izateko. 2. irudian, azken aldiko emaitzak adierazten dira.

3. taulan ageri dira 2008-2012 eta 2013-2017 aldietan bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua eta proportzioa EAEn, eta 3. irudian, 2013-2017 aldiko mota horretako heriotzen kopurua, baina soilik gizonezkoena.

2013-2017 aldian, okerren zeuden eremuetako heriotza-arriskua eremu mesedetuenena baino nabarmen handiagoa izan zen kausa guztietan, multzo handi hauetan: tumore gaiztoak, zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas sistemako gaixotasunak, kanpoko kausak eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak. Kausa espezifikoei dagokienez, lotura esanguratsua da honako hauetan: kardiopatia iskemikoa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK), diabetesa, biriketako minbizia, koloneko minbizia, goi-traktu aerodigestiboko minbizia, urdaileko minbizia, zirrosia eta hiesa. Bilakaerari dagokionez, lotura esanguratsua ikusi zitzaizen kausak 2008-2012 aldiko berberak izan ziren.

## Emaizak emakumezkoetan

Emakumeen kasuan, 4. taulan eta 4. irudian ageri da okerrago dauden eremuetako heriotza-arrisku erlatiboa (5. kintila, gabeziari dagokionez), mesedetuenen aldean (1. kintila) 2013-2017 aldian. 4. taulan ere ageri da aurreko aldiko arriskua.

5. taulan ageri dira 2008-2012 eta 2013-2017 aldietan bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua eta proportzioa EAEn, eta 5. irudian, 2013-2017 aldiko mota horretako heriotzen kopurua, baina soilik emakumezkoena.

2013-2017 aldian, okerren zeuden eremuetako heriotza-arriskua mesedetuetakoena baino nabarmen handiagoa izan zen multzo handietan: zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas sistemako gaixotasunak, kanpoko kausak eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak. Kausa espezifikoei dagokienez, lotura esanguratsua da kardiopatia iskemikoan, diabetesean eta trafiko-lesioetan. Dementzien eta

Alzheimerren gaixotasunaren kasuan, alderantziz gertatzen da; eremu mesedetuenetako emakumezkoek izan zuten heriotza-arriskurik handiena.

## 6. Ondorioak

Azterlan honek gabezia sozioekonomikoaren eta heriotza-arriskuaren arteko loturaren bilakaera aztertu du heriotza-kausa nagusietarako, 2013-2017 aldian. Aurreko aldien azterketetan bezala, 2013-2017 aldian ere pertsonen bizilekua desberdintasun-ardatz bat da heriotza-arriskuari dagokionez.

Gizonezkoen kasuan, lotura argia dago bizilekuaren eta heriotza-arriskuaren artean. 2013-2017 aldian, horixe ageri da hilkortasun-multzo handietan (kausa guztiak, tumore gaiztoak, zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas sistemako gaixotasunak, kanpoko kausak eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak) eta kausa espezifiko askotan, heriotza-arriskua handiagoa baita oraindik ere okerren dauden EAEko eremuetan. Desberdintasunei egotz dakizkiekeen heriotzen ehunekoa % 7,2 da ( % 5,0 - % 9,5).

Emakumezkoetan, lotura hori hain agerikoa izan ez bada ere, 2013-2017 aldian, okerren dauden eremuetako heriotza-arriskua handiagoa da hilkortasun-multzo handi batzuetan: zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas sistemako gaixotasunak, kanpoko kausak eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak. Azken emaitza horren garrantzia baloratu ahal izateko, etorkizuneko analisietan joera berari eusten zaion aztertu beharko da.

## 7. Bibliografia

- (1) Whitehead, M. (1992). *The concepts and principles of equity and health. International Journal of Health Services*, 22, 429-445.
- (2) Esnaola, S., Montoya, I., Calvo, M., Aldasoro, E., Audicana, C., Ruiz, R. eta Ibañez, B. (2010). *Euskal Autonomia Erkidegoko eremu txikietako hilkortasun-atlasa (1996-2003). Vitoria-Gasteiz: Osasun eta Kontsumo Saila.*

- (3) Montoya, I. (2015). *Evolución de las desigualdades socioeconómicas en la mortalidad en áreas pequeñas de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Doktore-tesia: <https://addi.ehu.es/handle/10810/17264>
- (4) Calvo M, Montoya I, Audicana C, Aldasoro E, Esnaola S eta Sáez M. (2019) *Euskal Autonomia Erkidegoko eremu txikietako hilkortasunaren bilakaeraren atlasa, 1996-2001 eta 2002-2007*. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila.
- (5) Dominguez-Berjon, M. F., Borrell, C., Cano-Serral, G., Esnaola, S., Nolasco, A., Pasarin, M. I., Escolar-Pujolar, A. (2008). *Gabezia-indize bat eraikitzea errolda-datuetatik abiatuta Espainiako hiri handietan (MEDEA proiektua)*. *Gaceta Sanitaria*, 18(22), 179-187.

## 8. Taulak eta irudiak


1. taula. EAEko heriotza kopurua 2013-2017 (\*) sexuaren arabera.



	<b>GIZONEZKOAK</b>	<b>EMAKUMEZKOAK</b>
<b>Kausa guztiak</b>	52.701	51.463
<b>Tumore gaiztoak</b>	18.624	11.889
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	13.253	14.816
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	5.481	4.772
<b>Kanpoko kausak</b>	2.370	1.361
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	827	887
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	3.177	6.803
Gaixotasun zerebrobaskularrak	2.923	3.827
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	4.140	2.538
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	2.319	898
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	1.021	1.058
Diabetesa	970	1.251
Biriketako minbizia	4.538	1.429
Koloneko minbizia	1.872	1.302
Pankreako minbizia	978	891
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	1.459	357
Urdaileko minbizia	1.079	635
Bularreko minbizia	17	1.681
Prostatiko minbizia	1.647	0
Tumore gaizto hematologikoak	1.309	1.031
Zirrosia	795	320
Suizidioa	639	246
Trafikoagatiko lesioak	266	74
Hiesa	108	22

(\*) Georreferentziatutako heriotza kopurua (>%99).

1. Irudia. Gabezia-indizea EAEko 2011ko zentsu-sekzioetan, kintilen arabera.



Egoera onenean dauden eremuak

Euskadiko batez bestekoa

Egoera ahulenean dauden eremuak

2. taula. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 2008-2012 eta 2013-2017. **Gizonezkoak.**




	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	1,24 (1,19 ; 1,29)	1,19 (1,14 ; 1,23)
<b>Tumore gaiztoak</b>	1,31 (1,24 ; 1,39)	1,27 (1,20 ; 1,34)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	1,13 (1,06 ; 1,22)	1,13 (1,06 ; 1,21)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	1,37 (1,23 ; 1,54)	1,32 (1,19 ; 1,46)
<b>Kanpoko kausak</b>	1,33 (1,16 ; 1,52)	1,19 (1,04 ; 1,36)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	1,82 (1,43 ; 2,32)	1,46 (1,18 ; 1,82)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	1,02 (0,88 ; 1,17)	0,89 (0,78 ; 1,01)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	1,12 (0,99 ; 1,26)	1,05 (0,93 ; 1,19)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	1,24 (1,11 ; 1,40)	1,32 (1,18 ; 1,48)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	1,49 (1,28 ; 1,73)	1,48 (1,26 ; 1,74)
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	n.d.	1,02 (0,84 ; 1,23)
Diabetesa	1,26 (1,02 ; 1,58)	1,48 (1,19 ; 1,83)
Biriketako minbizia	1,43 (1,29 ; 1,59)	1,49 (1,34 ; 1,67)
Koloneko minbizia	1,22 (1,05 ; 1,41)	1,28 (1,09 ; 1,51)
Pankreako minbizia	1,79 (1,50 ; 2,15)	1,61 (1,34 ; 1,93)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	1,06 (0,85 ; 1,30)
Urdaileko minbizia	1,57 (1,30 ; 1,92)	1,42 (1,16 ; 1,74)
Prostatiko minbizia	0,95 (0,81 ; 1,12)	0,92 (0,79 ; 1,09)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	1,03 (0,87 ; 1,23)
Zirrosia	2,09 (1,67 ; 2,60)	1,51 (1,19 ; 1,92)
Suizidioa	1,30 (1,00 ; 1,68)	1,18 (0,92 ; 1,52)
Trafikoagatiko lesioak	1,14 (0,77 ; 1,65)	1,50 (0,96 ; 2,32)
<b>Hiesa</b>	<b>4,79 (2,62 ; 9,03)</b>	<b>4,18 (2,15 ; 8,47)</b>

n.d.: Eskura ez dagoen analisia



2. Irudia. EAEko eremu behartsuenen heriotza-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 2013-2017. **Gizonezkoak.**



**3. Taula. EAEko bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K) eta proportzioa (%). 2008-2012 eta 2013-2017. Gizonetzkoak.**



	2008-2012		2013-2017	
	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)
<b>Kausa guztiak</b>	5.288 (3.971 ; 6.452)	10,4% (7,8% ; 12,6%)	3.808 (2.637 ; 4.981)	7,2% (5,0% ; 9,5%)
<b>Tumore gaiztoak</b>	2.361 (1.743 ; 2.948)	12,8% (9,5% ; 16,0%)	1.662 (1.040 ; 2.244)	8,9% (5,6% ; 12,0%)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	950 (376 ; 1.489)	7,0% (2,8% ; 11,0%)	1.000 (470 ; 1.491)	7,5% (3,5% ; 11,3%)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	720 (375 ; 1.059)	14,2% (7,4% ; 20,8%)	781 (437 ; 1.116)	14,2% (8,0% ; 20,4%)
<b>Kanpoko kausak</b>	328 (133 ; 504)	14,3% (5,8% ; 22,0%)	106 (-94 ; 316)	4,5% (-4,0% ; 13,3%)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	220 (112 ; 321)	27,0% (13,8% ; 39,5%)	49 (-71 ; 161)	6,0% (-8,6% ; 19,5%)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	98 (-147 ; 313)	3,7% (-5,7% ; 12,0%)	-272 (-548 ; -11)	-8,5% (-17,3% ; -0,4%)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	266 (33 ; 484)	8,4% (1,1% ; 15,3%)	200 (-18 ; 407)	6,8% (-0,6% ; 13,9%)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	473 (178 ; 758)	10,9% (4,1% ; 17,4%)	628 (362 ; 886)	15,2% (8,8% ; 21,4%)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	411 (180 ; 637)	15,7% (6,9% ; 24,4%)	419 (196 ; 619)	18,1% (8,4% ; 26,7%)
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	n.d.	n.d.	-13 (-147 ; 110)	-1,2% (-14,4% ; 10,8%)
Diabetesa	106 (-18 ; 232)	10,7% (-1,8% ; 23,4%)	192 (65 ; 305)	19,8% (6,7% ; 31,5%)
Biriketako minbizia	761 (486 ; 1.030)	16,8% (10,7% ; 22,7%)	726 (432 ; 997)	16,0% (9,5% ; 22,0%)
Koloneko minbizia	154 (-38 ; 333)	7,9% (-1,9% ; 17,0%)	194 (-2 ; 366)	10,3% (-0,1% ; 19,5%)
Pankreako minbizia	453 (299 ; 595)	28,8% (19,0% ; 37,9%)	291 (140 ; 427)	19,9% (9,6% ; 29,3%)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	28 (-106 ; 152)	2,9% (-10,8% ; 15,6%)
Urdaileko minbizia	250 (130 ; 365)	22,8% (11,9% ; 33,3%)	142 (6 ; 268)	13,2% (0,6% ; 24,8%)
Prostatatiko minbizia	-95 (-283 ; 83)	-5,5% (-16,6% ; 4,8%)	-25 (-203 ; 148)	-1,5% (-12,3% ; 9,0%)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	-7 (-158 ; 139)	-0,5% (-12,1% ; 10,6%)
Zirrosia	328 (215 ; 434)	32,8% (21,4% ; 43,3%)	143 (35 ; 246)	18,0% (4,4% ; 31,0%)
Suizidioa	73 (-26 ; 163)	12,0% (-4,3% ; 26,7%)	24 (-76 ; 115)	3,7% (-12,0% ; 18,1%)
Trafikoagatiko lesioak	28 (-58 ; 104)	7,9% (-16,2% ; 29,1%)	66 (1 ; 122)	24,9% (0,4% ; 45,9%)
Hiesa	94 (53 ; 131)	57,6% (32,2% ; 79,7%)	50 (16 ; 80)	46,4% (14,6% ; 74,3%)

n.d.: Eskura ez dagoen analisia

3. irudia. EAEn bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K). 2013-2017. **Gizonak.**




4. taula. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 2008-2012 eta 2013-2017. Emakumezkoak.



	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	1,01 (0,96 ; 1,05)	1,02 (0,98 ; 1,06)
<b>Tumore gaiztoak</b>	1,03 (0,96 ; 1,09)	0,99 (0,93 ; 1,05)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	1,03 (0,96 ; 1,10)	1,06 (1,00 ; 1,14)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	0,85 (0,75 ; 0,97)	1,12 (1,01 ; 1,25)
<b>Kanpoko kausak</b>	1,13 (0,95 ; 1,36)	1,21 (1,01 ; 1,46)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	1,19 (0,94 ; 1,51)	1,30 (1,04 ; 1,63)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	0,92 (0,82 ; 1,03)	0,83 (0,75 ; 0,92)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,94 (0,85 ; 1,05)	1,09 (0,98 ; 1,21)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	1,16 (1,01 ; 1,34)	1,20 (1,04 ; 1,37)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	0,89 (0,69 ; 1,15)	1,07 (0,84 ; 1,35)
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	0,71 (0,57 ; 0,89)	1,00 (0,80 ; 1,25)
Diabetesa	1,35 (1,10 ; 1,67)	1,44 (1,20 ; 1,73)
Biriketako minbizia	0,84 (0,68 ; 1,03)	0,92 (0,78 ; 1,11)
Koloneko minbizia	0,94 (0,78 ; 1,13)	1,04 (0,87 ; 1,24)
Pankreako minbizia	0,87 (0,69 ; 1,08)	1,04 (0,83 ; 1,30)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	0,71 (0,49 ; 1,01)
Urdaileko minbizia	1,67 (1,31 ; 2,16)	1,12 (0,86 ; 1,45)
Bularreko minbizia	0,94 (0,79 ; 1,10)	0,88 (0,76 ; 1,03)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	0,98 (0,81 ; 1,20)
Zirrosia	1,39 (1,03 ; 1,93)	1,17 (0,81 ; 1,69)
Suizidioa	0,87 (0,56 ; 1,33)	1,23 (0,82 ; 1,86)
Trafikoagatiko lesioak	n.d.	3,99 (1,73 ; 10,21)
<b>Hiesa</b>	3,71 (1,63 ; 9,71)	1,85 (0,54 ; 6,81)

n.d.: Eskura ez dagoen analisisia

4. Irudia. EAEko eremu behartsuenen heriotza-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 2013-2017. Emakumezkoak.




5. Taula. EAEko bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K) eta proportzioa (%). 2008-2012 eta 2013-2017. Emakumezkoak.



	2008-2012		2013-2017	
	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)
<b>Kausa guztiak</b>	-623 (-2.037 ; 719)	-1,3% (-4,3% ; 1,5%)	491 (-822 ; 1.777)	1,0% (-1,6% ; 3,5%)
<b>Tumore gaiztoak</b>	93 (-363 ; 515)	0,9% (-3,3% ; 4,7%)	5 (-444 ; 462)	0,0% (-3,7% ; 3,9%)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	-109 (-776 ; 554)	-0,7% (-5,2% ; 3,7%)	426 (-176 ; 1.032)	2,9% (-1,2% ; 7,0%)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	-380 (-712 ; -56)	-9,3% (-17,6% ; -13,9%)	123 (-188 ; 420)	2,6% (-3,9% ; 8,8%)
<b>Kanpoko kausak</b>	-36 (-168 ; 93)	-3,2% (-14,7% ; 8,2%)	144 (5 ; 280)	10,6% (0,3% ; 20,6%)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	68 (-54 ; 180)	7,9% (-6,4% ; 21,1%)	77 (-49 ; 185)	8,7% (-5,5% ; 20,9%)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	-481 (-926 ; -60)	-8,3% (-15,9% ; -1,0%)	-700 (-1.171 ; -260)	-10,3% (-17,2% ; -3,8%)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	-73 (-348 ; 180)	-1,8% (-8,4% ; 4,3%)	207 (-45 ; 433)	5,4% (-1,2% ; 11,3%)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	131 (-128 ; 381)	4,6% (-4,5% ; 13,4%)	245 (25 ; 443)	9,6% (1,0% ; 17,5%)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	-63 (-215 ; 78)	-6,5% (-22,0% ; 7,9%)	-28 (-160 ; 94)	-3,1% (-17,8% ; 10,4%)
Arnas infekzio akuatuak, pneumoniak eta gripea	-191 (-339 ; -55)	-19,9% (-35,2% ; -5,7%)	-7 (-149 ; 125)	-0,6% (-14,1% ; 11,8%)
Diabetesa	270 (101 ; 430)	19,9% (7,5% ; 31,7%)	211 (75 ; 340)	16,9% (6,0% ; 27,2%)
Biriketako minbizia	-98 (-245 ; 37)	-8,8% (-22,0% ; 3,3%)	-143 (-307 ; 16)	-10,0% (-21,5% ; 1,1%)
Koloneko minbizia	-67 (-210 ; 62)	-5,8% (-18,3% ; 5,5%)	7 (-135 ; 147)	0,6% (-10,4% ; 11,3%)
Pankreako minbizia	-92 (-212 ; 16)	-11,9% (-27,4% ; 2,0%)	69 (-49 ; 181)	7,7% (-5,5% ; 20,3%)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	-35 (-119 ; 37)	-9,8% (-33,4% ; 10,3%)
Urdaileko minbizia	182 (87 ; 269)	26,4% (12,7% ; 39,2%)	50 (-56 ; 141)	7,8% (-8,8% ; 22,3%)
Bularreko minbizia	30 (-131 ; 183)	1,8% (-8,2% ; 11,4%)	-231 (-401 ; -74)	-13,7% (-23,9% ; -4,4%)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	-31 (-160 ; 93)	-3,0% (-15,5% ; 9,0%)
Zirrosia	70 (-10 ; 144)	16,7% (-2,5% ; 34,5%)	34 (-37 ; 97)	10,6% (-11,5% ; 30,4%)
Suizidioa	-38 (-100 ; 18)	-18,4% (-48,4% ; 8,9%)	34 (-23 ; 88)	14,0% (-9,3% ; 35,7%)
Trafikoagatiko lesioak	n.d.	n.d.	42 (13 ; 65)	56,2% (18,1% ; 87,8%)
Hiesa	25 (-1 ; 47)	42,6% (-1,7% ; 79,8%)	1 (-22 ; 15)	3,2% (-100,0% ; 69,0%)

n.d.: Eskura ez dagoen analisia

5. irudia. EAEn bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K). 2013-2017. Emakumezkoak.



6. taula. Historikoa. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. **Gizonezkoak.**



	AE (KT 95%) 1996-2001	AE (KT 95%) 2002-2007	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	1,22 (1,17 ; 1,27)	1,17 (1,13 ; 1,22)	1,24 (1,19 ; 1,29)	1,19 (1,14 ; 1,23)
<b>Tumore gaiztoak</b>	1,24 (1,17 ; 1,30)	1,22 (1,16 ; 1,29)	1,31 (1,24 ; 1,39)	1,27 (1,20 ; 1,34)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	1,10 (1,04 ; 1,17)	1,06 (0,99 ; 1,13)	1,13 (1,06 ; 1,22)	1,13 (1,06 ; 1,21)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	1,37 (1,23 ; 1,54)	1,32 (1,19 ; 1,46)
<b>Kanpoko kausak</b>	1,43 (1,27 ; 1,60)	1,40 (1,22 ; 1,58)	1,33 (1,16 ; 1,52)	1,19 (1,04 ; 1,36)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	1,82 (1,43 ; 2,32)	1,46 (1,18 ; 1,82)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	1,09 (0,92 ; 1,27)	0,90 (0,77 ; 1,04)	1,02 (0,88 ; 1,17)	0,89 (0,78 ; 1,01)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	1,09 (0,98 ; 1,21)	1,01 (0,90 ; 1,13)	1,12 (0,99 ; 1,26)	1,05 (0,93 ; 1,19)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	1,10 (1,00 ; 1,21)	1,11 (1,00 ; 1,22)	1,24 (1,11 ; 1,40)	1,32 (1,18 ; 1,48)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	1,42 (1,24 ; 1,61)	1,61 (1,40 ; 1,84)	1,49 (1,28 ; 1,73)	1,48 (1,26 ; 1,74)
Arnas infekzio akutuak, pneumoniak eta gripea	n.d.	n.d.	n.d.	1,02 (0,84 ; 1,23)
Diabetesa	1,16 (0,94 ; 1,42)	0,97 (0,79 ; 1,18)	1,26 (1,02 ; 1,58)	1,48 (1,19 ; 1,83)
Biriketako minbizia	1,35 (1,21 ; 1,50)	1,39 (1,25 ; 1,52)	1,43 (1,29 ; 1,59)	1,49 (1,34 ; 1,67)
Koloneko minbizia	1,01 (0,85 ; 1,19)	0,95 (0,81 ; 1,11)	1,22 (1,05 ; 1,41)	1,28 (1,09 ; 1,51)
Pankreako minbizia	1,76 (1,52 ; 2,05)	1,77 (1,52 ; 2,08)	1,79 (1,50 ; 2,15)	1,61 (1,34 ; 1,93)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	n.d.	1,06 (0,85 ; 1,30)
Urdaileko minbizia	1,27 (1,06 ; 1,52)	1,53 (1,27 ; 1,84)	1,57 (1,30 ; 1,92)	1,42 (1,16 ; 1,74)
Prostatiko minbizia	1,01 (0,87 ; 1,21)	1,05 (0,89 ; 1,23)	0,95 (0,81 ; 1,12)	0,92 (0,79 ; 1,09)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	n.d.	1,03 (0,87 ; 1,23)
Zirrosia	1,79 (1,50 ; 2,13)	1,50 (1,24 ; 1,82)	2,09 (1,67 ; 2,60)	1,51 (1,19 ; 1,92)
Suizidioa	1,57 (1,23 ; 1,97)	1,48 (1,16 ; 1,87)	1,30 (1,00 ; 1,68)	1,18 (0,92 ; 1,52)
Trafikoagatiko lesioak	1,00 (0,82 ; 1,24)	1,11 (0,90 ; 1,43)	1,14 (0,77 ; 1,65)	1,50 (0,96 ; 2,32)
<b>Hiesa</b>	3,24 (2,34 ; 4,47)	3,24 (2,12 ; 5,14)	4,79 (2,62 ; 9,03)	4,18 (2,15 ; 8,47)

n.d.: Eskura ez dagoen analisia



7. taula. *Adierazgarritasuna*. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. **Gizonezkoak**.



	AE (KT 95%) 1996-2001	AE (KT 95%) 2002-2007	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	✓	✓	✓	✓
<b>Tumore gaiztoak</b>	✓	✓	✓	✓
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	✓	✓	✓	✓
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	✓	✓
<b>Kanpoko kausak</b>	✓	✓	✓	✓
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	✓	✓
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	-	-	-	-
Gaixotasun zerebrobaskularrak	-	-	-	-
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	✓	✓	✓	✓
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	✓	✓	✓	✓
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	n.d.	n.d.	n.d.	-
Diabetesa	-	-	✓	✓
Biriketako minbizia	✓	✓	✓	✓
Koloneko minbizia	-	-	✓	✓
Pankreako minbizia	✓	✓	✓	✓
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	n.d.	-
Urdaileko minbizia	✓	✓	✓	✓
Prostatiko minbizia	-	-	-	-
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	n.d.	-
Zirrosia	✓	✓	✓	✓
Suizidioa	✓	✓	✓	-
Trafikoagatiko lesioak	-	-	-	-
<b>Hiesa</b>	✓	✓	✓	✓

n.d.: Eskura ez dagoen analisisia

✓: Esanguratsua. Eremu behartsueneran hilkortasun-arrisku handiagoa dago.

✓: Esanguratsua. Eremu behartsueneran hilkortasun-arrisku txikiagoa dago.

8. Taula. Historikoa. EAEko bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K) eta proportzioa (%).1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. **Gizonezkoak.**



	1996-2001		2002-2007		2008-2012		2013-2017	
	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)
<b>Kausa guztiak</b>	5.278 (4.031 ; 6.462)	9,1% (6,9% ; 11,1%)	4.475 (3.052 ; 5.897)	7,5% (5,1% ; 9,9%)	5.288 (3.971 ; 6.452)	10,4% (7,8% ; 12,6%)	3.808 (2.637 ; 4.981)	7,2% (5,0% ; 9,5%)
<b>Tumore gaiztoak</b>	2.058 (1.437 ; 2.649)	10,7% (7,4% ; 13,7%)	1.988 (1.334 ; 2.647)	9,7% (6,5% ; 12,8%)	2.361 (1.743 ; 2.948)	12,8% (9,5% ; 16,0%)	1.662 (1.040 ; 2.244)	8,9% (5,6% ; 12,0%)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	427 (-166 ; 968)	2,5% (-1,0% ; 5,7%)	330 (-292 ; 968)	2,0% (-1,8% ; 5,9%)	950 (376 ; 1.489)	7,0% (2,8% ; 11,0%)	1.000 (470 ; 1.491)	7,5% (3,5% ; 11,3%)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	720 (375 ; 1.059)	14,2% (7,4% ; 20,8%)	781 (437 ; 1.116)	14,2% (8,0% ; 20,4%)
<b>Kanpoko kausak</b>	646 (385 ; 876)	17,8% (10,6% ; 24,1%)	499 (247 ; 729)	15,8% (7,8% ; 23,1%)	328 (133 ; 504)	14,3% (5,8% ; 22,0%)	106 (-94 ; 316)	4,5% (-4,0% ; 13,3%)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	220 (112 ; 321)	27,0% (13,8% ; 39,5%)	49 (-71 ; 161)	6,0% (-8,6% ; 19,5%)
<b>Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak</b>	12 (-154 ; 175)	0,7% (-9,0% ; 10,2%)	-37 (-234 ; 154)	-1,6% (-10,3% ; 6,8%)	98 (-147 ; 313)	3,7% (-5,7% ; 12,0%)	-272 (-548 ; -11)	-8,5% (-17,3% ; -0,4%)
<b>Gaixotasun zerebrobaskularrak</b>	219 (-53 ; 470)	5,1% (-1,2% ; 10,9%)	40 (-228 ; 307)	0,9% (-5,4% ; 7,3%)	266 (33 ; 484)	8,4% (1,1% ; 15,3%)	200 (-18 ; 407)	6,8% (-0,6% ; 13,9%)
<b>Bihotzeko gaixotasun iskemikoa</b>	87 (-261 ; 419)	1,4% (-4,3% ; 6,9%)	85 (-244 ; 421)	1,5% (-4,4% ; 7,6%)	473 (178 ; 758)	10,9% (4,1% ; 17,4%)	628 (362 ; 886)	15,2% (8,8% ; 21,4%)
<b>Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)</b>	641 (397 ; 895)	18,2% (11,3% ; 25,4%)	769 (509 ; 1.001)	21,8% (14,4% ; 28,4%)	411 (180 ; 637)	15,7% (6,9% ; 24,4%)	419 (196 ; 619)	18,1% (8,4% ; 26,7%)
<b>Arnas infekzio akuatuak, pneumoniak eta gripea</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	-13 (-147 ; 110)	-1,2% (-14,4% ; 10,8%)
<b>Diabetesa</b>	34 (-105 ; 154)	3,3% (-10,0% ; 14,7%)	-32 (-195 ; 113)	-2,7% (-16,4% ; 9,5%)	106 (-18 ; 232)	10,7% (-1,8% ; 23,4%)	192 (65 ; 305)	19,8% (6,7% ; 31,5%)
<b>Biriketako minbizia</b>	682 (380 ; 959)	14,3% (7,9% ; 20,1%)	655 (338 ; 948)	12,8% (6,6% ; 18,5%)	761 (486 ; 1.030)	16,8% (10,7% ; 22,7%)	726 (432 ; 997)	16,0% (9,5% ; 22,0%)
<b>Koloneko minbizia</b>	-50 (-215 ; 104)	-3,3% (-14,0% ; 6,8%)	-36 (-221 ; 133)	-1,9% (-11,5% ; 6,9%)	154 (-38 ; 333)	7,9% (-1,9% ; 17,0%)	194 (-2 ; 366)	10,3% (-0,1% ; 19,5%)
<b>Pankreako minbizia</b>	598 (407 ; 762)	26,8% (18,3% ; 34,2%)	561 (397 ; 728)	27,1% (19,2% ; 35,2%)	453 (299 ; 595)	28,8% (19,0% ; 37,9%)	291 (140 ; 427)	19,9% (9,6% ; 29,3%)
<b>Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	28 (-106 ; 152)	2,9% (-10,8% ; 15,6%)
<b>Urdaileko minbizia</b>	282 (145 ; 412)	19,2% (9,9% ; 28,1%)	337 (215 ; 462)	25,9% (16,5% ; 35,5%)	250 (130 ; 365)	22,8% (11,9% ; 33,3%)	142 (6 ; 268)	13,2% (0,6% ; 24,8%)
<b>Prostatato minbizia</b>	49 (-127 ; 203)	3,0% (-7,6% ; 12,3%)	93 (-73 ; 260)	5,3% (-4,2% ; 15,0%)	-95 (-283 ; 83)	-5,5% (-16,6% ; 4,8%)	-25 (-203 ; 148)	-1,5% (-12,3% ; 9,0%)
<b>Tumore gaizto hematologikoak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	-7 (-158 ; 139)	-0,5% (-12,1% ; 10,6%)
<b>Zirrosia</b>	337 (186 ; 476)	23,7% (13,1% ; 33,5%)	321 (178 ; 467)	23,2% (12,8% ; 33,7%)	328 (215 ; 434)	32,8% (21,4% ; 43,3%)	143 (35 ; 246)	18,0% (4,4% ; 31,0%)
<b>Suizidioa</b>	168 (71 ; 268)	22,9% (9,6% ; 36,4%)	140 (31 ; 231)	18,7% (4,2% ; 31,0%)	73 (-26 ; 163)	12,0% (-4,3% ; 26,7%)	24 (-76 ; 115)	3,7% (-12,0% ; 18,1%)
<b>Trafikoagatiko lesioak</b>	35 (-131 ; 189)	2,7% (-10,2% ; 14,7%)	54 (-75 ; 176)	6,3% (-8,7% ; 20,4%)	28 (-58 ; 104)	7,9% (-16,2% ; 29,1%)	66 (1 ; 122)	24,9% (0,4% ; 45,9%)
<b>Hiesa</b>	357 (268 ; 440)	50,3% (37,7% ; 62,1%)	168 (101 ; 223)	48,5% (29,3% ; 64,6%)	94 (53 ; 131)	57,6% (32,2% ; 79,7%)	50 (16 ; 80)	46,4% (14,6% ; 74,3%)

n.d.: Eskura ez dagoen analisia

9. taula. Historikoa. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean daudenen aldean (1. kintila): 1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. **Emakumezkoak.**



	AE (KT 95%) 1996-2001	AE (KT 95%) 2002-2007	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	1,04 (1,00 ; 1,09)	1,02 (0,98 ; 1,07)	1,01 (0,96 ; 1,05)	1,02 (0,98 ; 1,06)
<b>Tumore gaiztoak</b>	1,00 (0,94 ; 1,06)	1,00 (0,93 ; 1,06)	1,03 (0,96 ; 1,09)	0,99 (0,93 ; 1,05)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	1,00 (0,94 ; 1,06)	1,02 (0,96 ; 1,09)	1,03 (0,96 ; 1,10)	1,06 (1,00 ; 1,14)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	0,85 (0,75 ; 0,97)	1,12 (1,01 ; 1,25)
<b>Kanpoko kausak</b>	1,13 (0,95 ; 1,33)	1,20 (0,99 ; 1,45)	1,13 (0,95 ; 1,36)	1,21 (1,01 ; 1,46)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	1,19 (0,94 ; 1,51)	1,30 (1,04 ; 1,63)
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	1,02 (0,90 ; 1,16)	0,87 (0,78 ; 0,97)	0,92 (0,82 ; 1,03)	0,83 (0,75 ; 0,92)
Gaixotasun zerebrobaskularrak	1,02 (0,92 ; 1,12)	0,93 (0,85 ; 1,03)	0,94 (0,85 ; 1,05)	1,09 (0,98 ; 1,21)
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	1,05 (0,94 ; 1,17)	1,12 (0,98 ; 1,25)	1,16 (1,01 ; 1,34)	1,20 (1,04 ; 1,37)
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	1,22 (1,02 ; 1,46)	1,09 (0,89 ; 1,32)	0,89 (0,69 ; 1,15)	1,07 (0,84 ; 1,35)
Arnas infekzio akutuek, pneumoniak eta gripea	0,89 (0,72 ; 1,08)	1,02 (0,83 ; 1,25)	0,71 (0,57 ; 0,89)	1,00 (0,80 ; 1,25)
Diabetesa	1,53 (1,29 ; 1,84)	1,46 (1,21 ; 1,75)	1,35 (1,10 ; 1,67)	1,44 (1,20 ; 1,73)
Biriketako minbizia	0,71 (0,56 ; 0,90)	0,67 (0,53 ; 0,84)	0,84 (0,68 ; 1,03)	0,92 (0,78 ; 1,11)
Koloneko minbizia	0,97 (0,80 ; 1,18)	1,08 (0,89 ; 1,33)	0,94 (0,78 ; 1,13)	1,04 (0,87 ; 1,24)
Pankreako minbizia	0,82 (0,63 ; 1,02)	1,00 (0,79 ; 1,27)	0,87 (0,69 ; 1,08)	1,04 (0,83 ; 1,30)
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	n.d.	0,71 (0,49 ; 1,01)
Urdaileko minbizia	1,47 (1,17 ; 1,82)	1,56 (1,23 ; 2,00)	1,67 (1,31 ; 2,16)	1,12 (0,86 ; 1,45)
Bularreko minbizia	0,89 (0,77 ; 1,04)	0,89 (0,76 ; 1,07)	0,94 (0,79 ; 1,10)	0,88 (0,76 ; 1,03)
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	n.d.	0,98 (0,81 ; 1,20)
Zirrosia	1,49 (1,14 ; 1,94)	1,82 (1,35 ; 2,45)	1,39 (1,03 ; 1,93)	1,17 (0,81 ; 1,69)
Suizidioa	1,24 (0,87 ; 1,78)	0,97 (0,63 ; 1,49)	0,87 (0,56 ; 1,33)	1,23 (0,82 ; 1,86)
Trafikoagatiko lesioak	n.d.	n.d.	n.d.	3,99 (1,73 ; 10,21)
Hiesa	1,97 (1,24 ; 3,18)	4,30 (1,97 ; 9,56)	3,71 (1,63 ; 9,71)	1,85 (0,54 ; 6,81)

n.d.: Eskura ez dagoen analisisia

10. taula. *Adierazgarritasuna*. EAEn egoera ahulenean dauden eremuen hilkortasun-arrisku erlatiboa (5. gabezia-kintila), egoera onenean dauden aldean (1. kintila): 1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. *Emakumezkoak*.



	AE (KT 95%) 1996-2001	AE (KT 95%) 2002-2007	AE (KT 95%) 2008-2012	AE (KT 95%) 2013-2017
<b>Kausa guztiak</b>	✓	-	-	-
<b>Tumore gaiztoak</b>	-	-	-	-
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	-	-	-	✓
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	✓	✓
<b>Kanpoko kausak</b>	-	-	-	✓
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	-	✓
Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak	-	✓	-	✓
Gaixotasun zerebrobaskularrak	-	-	-	-
Bihotzeko gaixotasun iskemikoa	-	-	✓	✓
Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)	✓	-	-	-
Arnas infekzio akutuak, pneumoniak eta gripea	-	-	✓	-
Diabetesa	✓	✓	✓	✓
Biriketako minbizia	✓	✓	-	-
Koloneko minbizia	-	-	-	-
Pankreako minbizia	-	-	-	-
Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia	n.d.	n.d.	n.d.	-
Urdaileko minbizia	✓	✓	✓	-
Bularreko minbizia	-	-	-	-
Tumore gaizto hematologikoak	n.d.	n.d.	n.d.	-
Zirrosia	✓	✓	✓	-
Suizidioa	-	-	-	-
Trafikoagatiko lesioak	n.d.	n.d.	n.d.	✓
Hiesa	✓	✓	✓	-

n.d.: Eskura ez dagoen analisia

✓: Esanguratsua. Eremu behartsuenetan hilkortasun-arrisku handiagoa dago.

✓: Esanguratsua. Eremu behartsuenetan hilkortasun-arrisku txikiagoa dago.

11. Taula. Historikoa. EAEko bizilekuko desberdintasun sozioekonomikoei egotz dakizkiekeen heriotzen kopurua (K) eta proportzioa (%).1996-2001, 2002-2007, 2008-2012 eta 2013-2017. Emakumezkoak.



	1996-2001		2002-2007		2008-2012		2013-2017	
	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)	K (KT 95%)	% (KT 95%)
<b>Kausa guztiak</b>	398 (-881 ; 1.546)	0,8% (-1,8% ; 3,1%)	398 (-1.113 ; 1.812)	0,7% (-2,1% ; 3,4%)	-623 (-2.037 ; 719)	-1,3% (-4,3% ; 1,5%)	491 (-822 ; 1.777)	1,0% (-1,6% ; 3,5%)
<b>Tumore gaiztoak</b>	-248 (-671 ; 184)	-2,3% (-6,1% ; 1,7%)	-82 (-522 ; 360)	-0,7% (-4,5% ; 3,1%)	93 (-363 ; 515)	0,9% (-3,3% ; 4,7%)	5 (-444 ; 462)	0,0% (-3,7% ; 3,9%)
<b>Zirkulazio-sistemako gaixotasunak</b>	-224 (-905 ; 444)	-1,2% (-4,8% ; 2,3%)	18 (-695 ; 659)	0,1% (-3,8% ; 3,6%)	-109 (-776 ; 554)	-0,7% (-5,2% ; 3,7%)	426 (-176 ; 1.032)	2,9% (-1,2% ; 7,0%)
<b>Arnas aparatuko gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	-380 (-712 ; -56)	-9,3% (-17,6% ; -13,9%)	123 (-188 ; 420)	2,6% (-3,9% ; 8,8%)
<b>Kanpoko kausak</b>	42 (-113 ; 177)	2,9% (-7,9% ; 12,4%)	171 (29 ; 304)	12,5% (2,1% ; 22,1%)	-36 (-168 ; 93)	-3,2% (-14,7% ; 8,2%)	144 (5 ; 280)	10,6% (0,3% ; 20,6%)
<b>Infekzio- eta parasito-gaixotasunak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	68 (-54 ; 180)	7,9% (-6,4% ; 21,1%)	77 (-49 ; 185)	8,7% (-5,5% ; 20,9%)
<b>Dementziak eta Alzheimer-en gaixotasunak</b>	-71 (-354 ; 160)	-2,0% (-10,0% ; 4,5%)	-431 (-820 ; -41)	-8,0% (-15,2% ; -0,8%)	-481 (-926 ; -60)	-8,3% (-15,9% ; -1,0%)	-700 (-1.171 ; -260)	-10,3% (-17,2% ; -3,8%)
<b>Gaixotasun zerebroaskularrak</b>	42 (-260 ; 338)	0,7% (-4,5% ; 5,9%)	-201 (-523 ; 107)	-3,7% (-9,6% ; 2,0%)	-73 (-348 ; 180)	-1,8% (-8,4% ; 4,3%)	207 (-45 ; 433)	5,4% (-1,2% ; 11,3%)
<b>Bihotzeko gaixotasun iskemikoa</b>	-78 (-362 ; 189)	-1,9% (-8,8% ; 4,6%)	78 (-230 ; 346)	2,1% (-6,2% ; 9,4%)	131 (-128 ; 381)	4,6% (-4,5% ; 13,4%)	245 (25 ; 443)	9,6% (1,0% ; 17,5%)
<b>Arnas bideetako gaixotasun kronikoak (BGBK)</b>	194 (42 ; 343)	12,7% (2,7% ; 22,5%)	64 (-106 ; 213)	4,7% (-7,8% ; 15,7%)	-63 (-215 ; 78)	-6,5% (-22,0% ; 7,9%)	-28 (-160 ; 94)	-3,1% (-17,8% ; 10,4%)
<b>Arnas infekzio akutua, pneumoniak eta gripea</b>	-55 (-198 ; 75)	-4,8% (-17,2% ; 6,5%)	29 (-118 ; 163)	2,3% (-9,3% ; 12,9%)	-191 (-339 ; -55)	-19,9% (-35,2% ; -5,7%)	-7 (-149 ; 125)	-0,6% (-14,1% ; 11,8%)
<b>Diabetesa</b>	241 (63 ; 389)	15,5% (4,0% ; 25,1%)	374 (215 ; 534)	23,0% (13,2% ; 32,8%)	270 (101 ; 430)	19,9% (7,5% ; 31,7%)	211 (75 ; 340)	16,9% (6,0% ; 27,2%)
<b>Biriketako minbizia</b>	-193 (-306 ; -90)	-29,5% (-46,9% ; -13,8%)	-282 (-410 ; -145)	-31,2% (-45,4% ; -16,1%)	-98 (-245 ; 37)	-8,8% (-22,0% ; 3,3%)	-143 (-307 ; 16)	-10,0% (-21,5% ; 1,1%)
<b>Koloneko minbizia</b>	-33 (-158 ; 90)	-3,0% (-14,3% ; 8,1%)	42 (-94 ; 174)	3,4% (-7,6% ; 14,1%)	-67 (-210 ; 62)	-5,8% (-18,3% ; 5,5%)	7 (-135 ; 147)	0,6% (-10,4% ; 11,3%)
<b>Pankreako minbizia</b>	-129 (-232 ; -36)	-19,9% (-35,7% ; -5,6%)	-17 (-133 ; 90)	-2,2% (-17,9% ; 12,1%)	-92 (-212 ; 16)	-11,9% (-27,4% ; 2,0%)	69 (-49 ; 181)	7,7% (-5,5% ; 20,3%)
<b>Goiko aire- eta digestio-traktuko minbizia</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	-35 (-119 ; 37)	-9,8% (-33,4% ; 10,3%)
<b>Urdaileko minbizia</b>	161 (53 ; 258)	19,7% (6,5% ; 31,7%)	123 (23 ; 215)	17,3% (3,3% ; 30,3%)	182 (87 ; 269)	26,4% (12,7% ; 39,2%)	50 (-56 ; 141)	7,8% (-8,8% ; 22,3%)
<b>Bularreko minbizia</b>	-183 (-356 ; -13)	-9,4% (-18,4% ; -0,7%)	-46 (-220 ; 108)	-2,7% (-12,6% ; 6,2%)	30 (-131 ; 183)	1,8% (-8,2% ; 11,4%)	-231 (-401 ; -74)	-13,7% (-23,9% ; -4,4%)
<b>Tumore gaizto hematologikoak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	-31 (-160 ; 93)	-3,0% (-15,5% ; 9,0%)
<b>Zirrosia</b>	68 (-31 ; 156)	10,4% (-4,8% ; 23,8%)	133 (49 ; 207)	26,3% (9,6% ; 40,9%)	70 (-10 ; 144)	16,7% (-2,5% ; 34,5%)	34 (-37 ; 97)	10,6% (-11,5% ; 30,4%)
<b>Suizidioa</b>	14 (-53 ; 78)	5,0% (-18,3% ; 26,9%)	22 (-45 ; 75)	8,3% (-17,2% ; 28,4%)	-38 (-100 ; 18)	-18,4% (-48,4% ; 8,9%)	34 (-23 ; 88)	14,0% (-9,3% ; 35,7%)
<b>Trafikoagatiko lesioak</b>	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	42 (13 ; 65)	56,2% (18,1% ; 87,8%)
<b>Hiesa</b>	58 (-5 ; 110)	26,3% (-2,2% ; 49,6%)	61 (25 ; 93)	56,7% (22,8% ; 85,8%)	25 (-1 ; 47)	42,6% (-1,7% ; 79,8%)	1 (-22 ; 15)	3,2% (-100,0% ; 69,0%)

n.d.: Eskura ez dagoen analisia

